

IKASKUNTZAREN AUTORREGULAZIOA

Ondoko proposamenak ikaskuntzaren autorregulazioari lotutakoak dira. Ikastea, ordea, eta bere autorregulazioa, langintza globalan gertatzen da. Beraz, ondokoak dira lan horiek egiterako orduan proposatzen diren gomendioak ikaste prozesua hobetzeko:

- Zereginen planifikazioaz gogoeta egitea eta proposatutako ekintzak pauso bat baino gehiago dituen kasuetan horiek beste norbaitekin partekatzea (*zer egin behar dut? Nola egingo dut? Zer lehenengo? Zer ondoren? Zer material beharko dut? Non egingo dut? ...*)
- Eguneko jardunaren ondoren, gogoeta egitea egindakoaren inguruan eta beste norbaitekin partekatzea (*Zer egin dut ondo? Zer egin nezakeen hobeto? Zer izan behar dut hurrengoan hobetzeko? ...*). Ikasmilaren arabera, hobetzekoak idatziz edo beste adierazpide batzuk erabiliz apuntatzea eskatu ahal zaio ikasleari

Jarduera hauek proposatzen dira:

- Eguneroko baten erabilera, egunean zehar egin dituenak bertan berak erabakitako moduan (lehenengo mailatan, marrazki bat izan daiteke, edota idatziz izan daiteke, edota heldu baten egin diezazkioke idazkari lanak) idatziz jasotzeko.
- Asteko planifikazio taula baten erabilera, egin nahi duenaz pentsatzeko, nola egingo duen zehazteko, eta aste baten barneko ekintzak planifikatzeko. Kasu honetan ere, adinaren arabera, adierazteko modu ezberdinak erabili daitezke (aurrez idatzitako testuak itsasgarri bihurtu daitezke, marrazkiekin egindako irudiak itsasgarri moduan erabili daitezke ...)

Bestalde, ez da ahaztu behar, egoera akademikoan nahiz etxeko egunerokoan aplikatzeko jarduerak ikaskuntzaren autorregulazioan aberasgarri izango direla.

- Esaterako: etxean kolaboratzeko ardurak hartzea, irteerak antolatzea, txango batera zer eraman pentsatzea, ...